

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 128/2020 Erabakia, otsailaren 25ekoa. Deialdi publikoa onestea Arabako kirol federazioei laguntzak emateko, Arabako Foru Aldundiaren laguntzaile direnez Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legean ezarritako eskumenak egikaritzean

Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolaren Legeak (14/1998 Legea, ekainaren 11koa), 3. artikuluan, kirol federazioak aipatzen ditu Administrazio Publikoen agente laguntzailetzat, Euskadin kirola antolatzen eta garatzen parte hartzen baitute Administrazio Publikoekin batera; eta 15. artikuluan dio ezen administraziozko funtzio publikoak betetzen dituztela eskuordetaz.

Era berean, 5. artikulua bidez, lurralde historikoetako foru organoei esleitzen zaizkie onespren, laguntza, finantzazio, esku hartze eta kontrolaren gaineko eskumenak, kirol federazioek beren funtzio publikoak betetzen dituztela bermatzearen, beren jarduera pribatuaren kalterik gabe.

16/2006 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioei buruzkoa) 6. artikuluan dio ezen Administrazioek kirol federazioei beren jarduerak egiteko behar dituzten laguntza teknikoa eta babes ekonomikoa emango dizkietela, beren aurrekontuetan ezarrita dauden diru-horniduren arabera.

16/2006 Dekretuaren 16.1. artikulua dioenez, lurraldeetako kirol federazioek lurralde historikoetako foru organoekin lankidetzan gauzatuko dituzte eginkizunak. Horretarako, lankidetz hitzarmenak izenpetuko dituzte elkarren artean, eskuordetutako egiteko publikoekin zuzenean lotutako helburuak, kirol programak, aurrekontuak eta gainerako alderdiak zehazteko.

Beraz, erabaki honen helburua da, aurrekontu mugen barruan, Arabako kirol federazioak behar beste diru baliabidez hornitzeko modua jartzea, federazioek beren administrazio eginkizun publikoak betetzeko eta, oro har, Arabako Foru Aldundiaren laguntzaile zereginetan dihardutenerako, 14/1998 Legeak (14/1998 Legea, ekainaren 11koa, euskal Autonomia erkidegoko Kirolarena) hari aitortzen dizkion eskumenak egikaritzuz.

Federazio horietako bakoitzarentzako urteko ekarpena urteroko zenbateko gutxieneko bat eta zenbateko osagarri bat izango dira.

Aginduzko txostenak ikusi dira.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, erabaki hau onetsi da

ERABAKIA

Lehen. Onestea Arabako Kirol Federazioentzako laguntzetarako deialdi publikoa (2020an, 357.000,00 euroko hornidura izango du, gehienez), haiek diru baliabidez hornitzearen betetzen dituzten administraziozko funtzio publikoak bete ditzaten, eta, oro har, Arabako Foru Aldundiaren agente laguntzaile moduan jarduten direnerako 14/1998 Legeak hari esleitzen dizkion eskumenak baliatuz (14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolarena); Foru Gobernu Kontseiluaren 50/2019 Foru Dekretuaren pean izango da deialdia, azaroaren 12koa, (2019ko azaroaren 20ko ALHAOn argitaratua, 134. zenbakian), zeinaren bidez onartu baitziren Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan norgehiagokaz ematen diren dirulaguntzetan aplikatzekoak izango diren oinarri arautzaile orokorrak.

Bigarrena. Dirulaguntza horiek Arabako Foru Aldundiaren 2020rako ekitaldiko gastu aurrekontuko 70.2.01.77.01.481.00.05 partidatik (“Kirol federaziak”) emango dira (xedapen erreferentzia: 105-726).

Hirugarrena. Kirol Zuzendaritzaren proposamena aztertu ondoren emango du organo eskudunak bidezko ebazpena; horretarako sei hilabete izango ditu, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Epe horretan ebazpen espresurik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertzeko errekurtsua jar dakioko Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeak (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa) 42. eta 43. artikuluetan ezartzen dituen moduetan.

Seigarrena. Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari ahalmena ematea erabaki honetan arautzen diren hitzarmenak sinatzeko.

Zazpigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 25a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura eta Kirol zuzendaria

PABLO DE ORAÁ OLEAGA

Foru Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren I. eranskina

Arabako Foru Aldundiaren eta, administrazioaren erakunde laguntzaileak diren aldetik, Arabako kirol federazioen arteko hitzarmenak arautzeko irizpideak

1. artikulua. Hitzarmenen xedea

Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako kirol federazioen arteko lankidetzaren arautzea, federazio horiek diru baliabidez hornitzeko, administrazio eginkizun publikoak garatu ahal izan ditzen eta, oro har, Arabako Foru Aldundiaren eragile laguntzaile gisa diharduenerako, ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, esleitzen dizkien eskumenak erabiliz.

2. artikulua. Ekarpenen helburu diren jarduerak

Hitzarmen horien bitartez egiten diren ekarpenek Arabako kirol federazioen 2020ko ohiko jardunari aurre egitea izango dute helburu.

Ohiko jardueratzat hartuko da honako helburua duena:

- a) Funtzionamendu gastuak (langileak, laguntzaileak...).
- b) Bulegoko gastuak (hornidurak, telefona, fotokopiak, Internet, web orrialdeen mantentze lana, etab.).
- c) Edonolako kirol jardueren garapena osatzeko egindako gastuak.

3. artikulua. Erakunde onuradunak

Erabaki honetan araututako hitzarmenen onuradun izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatuta dauden Arabako kirol federazioak, baldin eta 2019. urtean federazio jarduera garatu badute.

Ez dira onuradun izango, ez Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuak, Kultura eta Kirol Sailak emandako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorrak onartu zituenak, hirugarren oinarrian jasotako bazterte egoeretan dauden erakundeak, ez Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legean, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoan, araututako egoeraren batean daudenak.

4. artikulua. Arabako Foru Aldundiaren betebeharrak

Aipatutako federazioari diruz laguntzea 2020an, ondoko ekarpen hauek eginez:

- a) Federazio bakoitzari urteko gutxienerako ekarpena, 3.000 eurokoa.
- b) Ekarpene osagarria, Foru Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez onesten den zenbatekoarekin, deialdi hau onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren erabakiaren II. eranskinean jasotzen diren irizpideak eta puntuazio baremoak aplikatuz.
- c) Ekarpene bat San Prudentzio jaiak ospatzeko kirol jarduerak antolatzeagatik, gehienez ere 26.250 eurokoa.

5. artikulua. Hitzarmenak izenpetzen dituzten Arabako kirol federazioen obligazioak

Hitzarmenak izenpetzen dituzten Arabako kirol federazioen obligazioak dira:

- a) Erabaki honen II. eranskinean jasotzen diren agiriak aurkeztea bertan adierazten diren epeen barruan.
- b) Oinarrietan ezarritakoa kontuan hartuta, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzeko beharra, dirulaguntzen deialdiak ebazteko behar diren ziurtagiriak eta datuak batzen.
- c) Dagokion Euskal Federazioari 2006. urteaz geroztik (urte hori barne) jaiotako eskolako kirolarientzat lizentzia federatuak ez izapidetzeko konpromisoa, Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zuzendaritzaren baimen espresurik gabe, 2019-2020ko eskola kiroleko kanpaina arautzen duten araudiak onartu dituen 186/2019 Foru Aginduaren IV. eranskineko B.6.1) puntuan adierazitakoaren arabera.

d) Eskola kirolarientzat kirol lehiaketarik ez antolatzeko konpromisoa, Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kirol Zuzendaritzaren baimen espresurik gabe, 2019-2020ko eskola kiroleko kanpaina arautzen duten araudiak onartu dituen 186/2019 Foru Aginduaren VII. Eranskinean adierazitakoaren arabera.

e) Kirol Zuzendaritzak jardueren inguruan eskatzen dizkion datu eta agiri guztiak ematea. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontu Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatzen duten informazioa ere eman beharko dute, eta egin beharreko auditoria onartu beharko dute.

f) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituen ziurtagiriak aurkeztea.

Eskatzaileak soldatapeko langilerik badu, bere zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela eta urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 12.2 artikuluan jasotako debekuren batek eragiten ez diola egiaztatu beharko du. Horretarako, gai horietan eskumena duten erakundeen egiaztagiria aurkeztuko ditu. Dirulaguntza 800 euro baino gutxiagokoa bada, ordea, ez ditu aipatutakoak egiaztatu beharko, 58/2004 Foru Dekretuak xedatutakoarekin bat etorriz. Zerga betebeharrei dagokienez, sozietatearen egoitza Araban daukaten erakunde onuradunak direnez, nahikoa izango da egunean dituela adieraztea, eta Foru Aldundiaren zeregina izango da egiaztagiria egitea, Foru Ogasunaren bidez.

g) Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzkoak, xedatutako printzipio orokorrak betetzea bere jardueretan, bereziki hurrengo alderdiei dagokienez: komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan hizkeraren berdintasuneko erabilera bermatzea; emakumea diskriminatzen duten irudiak saihestea; eta berdintasunaren, aniztasunaren, askotariko eginkizunen eta erantzunkidetasunaren irudia sustatzea.

6. artikulua. Prozedura hastea

Hogeita egun naturaleko epea ezartzen da, gehienez, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, honako puntu hauek adierazten dituen arauzko inprimaki egokia, behar den bezala beteta, aurkezteko:

a) Interesa duten Arabako kirol federazioek, administrazioaren erakunde laguntzaile diren aldetik, Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmena izenpetzeko asmoa.

b) Erabaki honen I. eranskineko 3. artikuluko 2. parrafoan adierazitako baztertzeko arrazoi bat bera ere betetzen ez delako adierazpena.

c) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituelako adierazpena.

7. artikulua. Urteko gutxieneko ekarpena ordaintzea

Aipatutako hitzarmena izenpetutakoan, orduan ordainduko da ohiko jarduerarako urteko gutxieneko ekarpena.

8. artikulua. Interpretazioa

Kultura eta Kirol Sailak ebatziko ditu erabaki honen xede diren hitzarmenetako klausulak interpretatzerakoan sor daitezkeen zalantza guztiak.

9. artikulua. Arauak ez betetzea

Erabaki honen xede diren hitzarmenetako klausulak betetzen ez badira, hitzarmen horiek ezeztatu egingo dira, eta gutxieneko ekarpen moduan jasotako diru kopuruak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.

Foru Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren II. eranskina

Arabako Foru Aldundiaren eta, administrazioaren erakunde laguntzaile diren aldetik, Arabako kirol federazioen arteko 2020rako hitzarmenetan eta San Prudentzio jaietako jarduerengatik egin beharreko ekarpena finkatzeko irizpideak eta baremoak

Lehenengoa. Ekarpene osagarriko eta San Prudentzio jaietako jardueretako prozedura bideratzea, balioespen irizpideak eta puntuazioa

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zuzendaritzak izango du prozedura izapidetzeko eskumena.

Arabako kirol federazioentzako ekarpen osagarriari eta San Prudentzio jaietako jardueri dagozkien zenbatekoak ezartzeko, I. inprimakian jasotako datuak balioetsiko dira, erabaki honen II. eranskinean jasotako irizpideen eta puntuazio baremoen arabera.

Hitzarmen bakoitzerako ekarpen osagarria eta San Prudentzioko jardueren proposamena egiteko, Balioespen Batzordea eratuko da. Batzordeko burua Kirol zuzendaria izango da eta honako hauek osatuko dute, mahaikide bezala: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako teknikari bat. Kultura eta Kirol Saileko Idazkaritza Teknikoaren buruak jardungo du idazkari lanetan, hitzarekin baina botorik gabe.

Kultura eta Kirol Sailak, egoki iruditzen zaion kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriari buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

Espedientea eta kide anitzeko organoak emandako txostena aztertuta, Kirol Zuzendaritzak, organo instruktorea den aldetik, behin betiko ebazpen proposamena egingo du, eta hitzarmen bakoitzerako ekarpenaren zenbatekoa zehaztuko du, haren ebaluazioa eta horretarako erabili diren balioespen irizpideak zehaztuz.

Bigarrena. Laguntza osagarria eta San Prudentzioko jarduerak kalkulatzeko beharrezko agiriak, eta horiek aurkezteko epea

Kasuan kasuko I. eranskinean aipatutako hitzarmena izenpetu duten Arabako kirol federazioek ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte, 2020ko ekainaren 29an amaitzen den epean:

Aipatutako agiriak aurkezten ez badira, hitzarmenak deuseztatu egingo dira, eta gutxieneko ekarpen moduan jasotako diru kopuruak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.

1. Laguntza osagarria.

A. I. inprimakia, behar bezala beteta eta honako datu hauekin:

a) Federazioaren egitura eta jardueren antolaketa:

a.1. Soldatapeko langileak egotea 6 hilabetez, behintzat, 2019an. Soldatapeko langileak daudela egiaztatzeko, federazioek hauexek entregatu beharko dituzte:

- Lan kontratuaren kopia.
- Gizarte Segurantzaren TC1 eta TC2 kotizazio agiriak, 2019. urteari dagozkionak.
- 2019ko aldiko PFEZaren ekarpenen urteko laburpena (190 eredu).

a.2. Eskola kiroleko hitzarmena badagoen.

a.3. Federazioko kideek kudeaketa sistemari buruzko ikastaroetan (Euskalit) parte hartu izana ikastaro horietako ziurtagiriak indarrean daudela.

a.4. Parekotasuna federazioaren zuzendaritza batzarraren osaeran.

a.5. 2019ko hizkuntza normalizazioko planak:

a.5.1. Hizkuntza normalizatzeko planaren ziurtagiria.

a.5.2. Hizkuntza normalizatzeko plana inplementatzearen ziurtagiria.

5.1 edo 5.2. apartatuak direla eta ordainketa jaso duten federazioei ez zaie beste ordainketa egingo kontzeptu beragatik.

a.6. 2019ko berdintasun planak:

a.6.1. Berdintasun planaren ziurtagiria.

a.6.2. Berdintasun plana inplementatzearen ziurtagiria.

6.1 edo 6.2. apartatuak direla eta ordainketa jaso duten federazioei ez zaie beste ordainketa egingo kontzeptu beragatik.

b) Kirol federatua (federazioaren lizentzia –ez eskola lizentzia– daukatenek parte hartzen duten lehiaketa ofizialei buruzko datuak).

b.1. 2019ko abenduaren 31n eginik dituzten lizentzia federatuen kopurua. Hori egiaztatzeko, federazioek aurkeztuta eduki behar dute federazio lizentzien 2019ko ziurtagiria, Kirol Zerbitzuak eskatua, sexuka bereizita kategoria bakoitzean.

b.2. Federazioari atxikita dauden eta 2019an lurraldeko, autonomia erkidegoko edo estatuko lehiaketa ofizial federatuetan parte hartu duten kirol klub edo elkarten (ez taldeen) kopurua.

b.3. Lurraldeko lehiaketa ofizial federatuko egutegietan 2019an (urtarriletik abendura) egon diren jardunaldien kopurua.

– Lehiaketa “ofizialak” baino ez dira kontuan izango; hau da, “Arabako txapeldun” titulua lortzera bideratutakoak, hainbat modalitate, kategoria eta adin tartetan, eta Arabako kasuan kasuko federazioak antolatu eta garatutakoak.

– Hortaz, bazter geratzen dira lagunartekoak.

– Halaber, bazter geratzen dira lehiaketa ofizial guztiak; hau da, “Arabako lehiaketa” bat lortzera bideratutakoak, klub batek eta ez kasuan kasuko Arabako federazioak partez edo guztiz antolaturikoak.

Atal hori betetzeko, lehiaketa egun bakoitza jardunaldi bat izango da, emakumezkoen zein gizonezkoen kategoria bakoitzeko (kadeteak, gazteak, seniorrak, eta abar), modalitate edo kirol espezialitateetako lurralde egutegietan. Kategoria berean hainbat talde badaude (A, B, C...) eta horien jardunaldiak egun berberetan badira, jardunaldiko egun bat baino ez da kontuan hartuko.

c) Eskola kirola (Arabako eskola kiroleko jokoen garapenean erakunde laguntzaile moduan parte hartzen duten Arabako kirol federazioak eta Arabako Mendi Federazioa, eskola umeen mendi irteerak egiteagatik):

c1. Eskola umeen lehiaketa ofizialean eta mendi irteeretan (2019-2020 Eskola Kiroleko Kanpaina) parte hartzen duten irabazteko xederik gabeko elkarten (ez taldeak) kopurua. Hori egiaztatzeko, ez da behar inolako daturik, Kirol Zerbitzu bera izango baita 2019-2020 eskola kiroleko kanpainan egon diren izen-emateen arabera.

c2. Eskola lehiaketa ofizialeko egutegietan (benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak) zenbat jardunaldi eta eskola umeen zenbat mendi irteera egin diren 2019-2020 eskola kiroleko kanpainan.

Atal hori betetzeko, lehiaketa egun bakoitza jardunaldi bat izango da, emakumezkoen zein gizonezkoen kategoria bakoitzeko (benjaminak, kimuak, haurrak, kadeteak, eta abar), modalitate edo kirol espezialitateetako lurralde egutegietan. Kategoria berean hainbat talde badaude (A, B, C...) eta horien jardunaldiak egun berberetan badira, jardunaldiko egun bat baino ez da kontuan hartuko.

B. 2019ari buruzko kontabilitatea:

a. Orriak numeratuta eta zigilatuta dauzkan liburu batean eramatekotan, nahikoa izango da 2019ari dagozkion orrien fotokopia.

b. Kontabilitatea ez bada liburu bidez eramaten, haren fotokopia aurkeztu beharko da, Eusko Jaurlaritzaren Kirol Zuzendaritzako Kirol Erakundearen Erregistroak hari oniritzia eman eta gero.

C. 2020an egindako batzarraren akta.

D. 2020rako aurrekontua edo 2019-20 denboraldikoa (dagokionaren arabera):

D1. Bakarra izango da eta federazioaren gastu eta sarrera guztiak jasoko ditu.

D2. Kapituluak eta programak egongo da zehaztuta.

D3. Gastu eta sarreretan berdinduta egongo da eta ezin izango du defizitik sortu, aldez aurretik Arabako Foru Aldundiaren baimena lortu ez bada.

D.4 Aurrekontua Batzar Orokorraren onarpenaren bidez aurrekontua berriro orekatzeko konpromiso espresua (federazio bakoitzarena) jasotzen duen inprimaki normalizatua:

1) Erakunde laguntzaile moduan egindako hitzarmenaren bitartez Arabako Foru Aldundiak egindako ekarpena ez badator bat aurrez jotakoarekin, gehienez ere 30 egun balioduneko epean, urteko gutxieneko ekarpenaren eta ekarpen osagarriaren berri jasotzen denetik.

2) Arabako Eskolarteko Kirol Jokoak burutzeko hitzarmenaren bitartez Arabako Foru Aldundiak emandako ekarpena ez badator bat aurretik jotakoarekin, gehienez ere 30 egun balioduneko epean, aipatutako hitzarmena izenpetzen denetik aurrera.

3) Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zerbitzuari baimena eskatzen bazaio programen arteko kreditu transferentziak egiteko, eta horien zenbatekoa gutzirako aurrekontuaren ehuneko 20 baino gehiago bada.

2. San Prudentzio jardueretarako.

San Prudentzio jaiegunaren inguruan antolatutako eta gauzatutako kirol jardueren memoria edo txostena. Dagokion inprimakia, behar bezala beteta, eta egindako jardueraren datuekin. Jarraian hori 2020ko apirilak 17tik maiatzaren 10era dagoen epean egin behar da, bi datak barne.

Hirugarrena. Laguntza osagarria eta San Prudentzioko jardueretarako zenbatekoa

Ondoko eragiketa honetatik ateratzen den emaitza ezartzen da ekarpen osagarri gisa 2020rako: erabaki honetako xedapen zatitik lehenengoan zehaztutako kopurua (357.000 euro) ken San Prudentzio jaietako jarduerak antolatzeagatik Arabako kirol federazioei urteko gutxieneko ekarpen gisa egindako ekarpenen batura. Kirol federazio bakoitzari emango zaion zenbatekoa izango da II. eranskin honetako laugarren apartatuan adierazitako irizpide eta barmoak aplikatuz ateratzen dena.

Behin kalkulatu denean zer kopuru eman behar den San Prudentzio eguna ospatzeko kirol jarduerak antolatzeagatik, baldin eta gerakinik badago, Balioespen Batzordeak gerakin hori ekarpen osagarriko erabiltzea proposatu ahalko du.

Ekarpen osagarriaren ordainketa eta San Prudentzio eguneko epe bakarrean egingo da, behin federazio bakoitzerako zenbatekoa finkatzen duen Diputatuen Kontseiluen erabakia onetsitakoan.

Laugarrena. Ekarpn osagarria eta San Prudentzio jardueren zenbatekoa finkatzeko irizpideak eta baremoak

Irizpideak:

A - Ekarpn osagarria.

Puntuazioaren arabera kalkulu sistema bat erabiliko da. Federazio bakoitzari dagokion diru kopurua jakiteko, ekarpn osagarrietara zuzendutako zenbatekoa, aurreko puntuaren ezarritakoaren arabera, zatitu egingo da erakunde onuradun guztiei puntuazio baremoa aplikatuta ateratzen diren puntuaren baturaz, eta eragiketa horrek zehaztuko du puntuaren balioa. Federazio bakoitzerako ekarpna, puntuaren balioa baremoaren aplikaziotik ateratako puntu guztiekin biderkatzearen emaitza izango da.

Puntuazio baremoa:

a) Federazioaren egituragatik eta jardueren antolaketarengatik:

	PUNTUAK
Federazioan pertsona bat kontratatuta edukitzeagatik, behintzat 6 hilabete 2019an	5
Federazioan bi pertsona kontratatuta edukitzeagatik, haietako bakoitza 6 hilabete, behintzat, 2019an	10
Federazioan hiru pertsona edo gehiago kontratatuta edukitzeagatik, haietako bakoitza 6 hilabete, behintzat, 2019an	15
Eskola kirola garatzeko hitzarmena izateagatik	10
Egituraren funtzionamendua hobetzeko kudeaketa sistema aurreratuei buruz Euskalit - Bikaintasunerako Fundazioak antolatutako ikastaroan federazioko kideek parte hartzeagatik ikastaro horietako ziurtagiriak indarrean daudela.	18
Zuzendaritza batzarreko kideak ehuneko 40 edo gehiago emakumeak izateagatik.	5
Hizkuntza normalizatzeko plana diseinatuta izatearen ziurtagiria	2
Hizkuntza normalizatzeko plana inplementatuta izatearen ziurtagiria	3
Berdintasun plana diseinatuta izatearen ziurtagiria	2
Berdintasun plana inplementatuta izatearen ziurtagiria.	3

b) Kirol federatua:

Lehiaketa ofizialetako datuak, federazio lizentzia –ez eskola lizentzia– duten parte-hartzaileei buruzkoak.

b1. 2019ko abenduaren 31n emanda dauden federazio lizentzien kopuruagatik:

FEDERAZIO LIZENTZIEN KOPURUA	PUNTUAK
100 lizentzia edo gutxiago	2
101 - 200 lizentzia	4
201 - 300 lizentzia	6
301 - 400 lizentzia	8
401 - 500 lizentzia	10
501 - 600 lizentzia	12
601 - 700 lizentzia	14
701 - 800 lizentzia	16
801 - 900 lizentzia	18
901 - 1.000 lizentzia	20
1.001 - 1.100 lizentzia	22
1.101 - 1.200 lizentzia	24
1.201 - 1.300 lizentzia	26
1.301 - 1.400 lizentzia	28
1.401 - 1.500 lizentzia	30
1.501 - 1.600 lizentzia	32
1.601 - 1.700 lizentzia	34
1.701 - 1.800 lizentzia	36
1.801 - 1.900 lizentzia	38
1.901 - 2.000 lizentzia	40
2.001 - 2.100 lizentzia	42
2.101 - 2.200 lizentzia	44
2.201 - 2.300 lizentzia	46
2.301 - 2.400 lizentzia	48
2.401 - 2.500 lizentzia	50
2.501 - 2.600 lizentzia	52
2.601 - 2.700 lizentzia	54
2.701 - 2.800 lizentzia	56
2.801 - 2.900 lizentzia	58
2.900 baino gehiago	60

b2. Kirol klub edo elkarten kopuruagatik:

Federazioari atxikita dauden eta lurraldeko, autonomia erkidegoko edo estatuko lehiaketa ofizial federatuetan 2019an parte hartu duten kirol klub edo elkarten (ez taldeen) kopurua (puntuak kontuan hartuko badira, beharrezkoa da b.1) atalean aipatu diren federazio lizentziak izatea):

KLUB KOPURUA	PUNTUAK
1 - 5 klub	1
6 - 10 klub	2
11 - 15 klub	3
16 - 20 klub	4
21 - 25 klub	5
26 - 30 klub	6
31 - 35 klub	7
36 - 40 klub	8
41 - 45 klub	9
46 - 50 klub	10
51 - 55 klub	11
56 - 60 klub	12
61 - 65 klub	13
66 - 70 klub	14
71 - 75 klub	15
76 - 80 klub	16
81 - 85 klub	17
86 - 90 klub	18
91 - 95 klub	19
96 - 100 klub	20
101 - 110 klub	21
111 - 120 klub	22
121 - 130 klub	23
131 - 140 klub	24
140 klub baino gehiago	25

b3. Jardunaldi kopuruagatik:

Lurraldeko lehiaketa ofizial federatuko egutegietan 2019an (urtarriletik abendura) egon diren jardunaldien kopurua. Batu egingo dira federatutako kategoria guztietako (gizonezkoenak nola emakumezkoenak) jardunaldiak (puntu hauek zenbatzeko, beharrezkoa da atalean zehaztutako federazio lizentziak izatea).

EGUTEGIKO JARDUNALDI KOPURUA	PUNTUAK
1 - 10 jardunaldi	2
11 - 20 jardunaldi	4
21 - 30 jardunaldi	6
31 - 40 jardunaldi	8
41 - 50 jardunaldi	10
51 - 60 jardunaldi	12
61 - 70 jardunaldi	14
71 - 80 jardunaldi	16
81 - 90 jardunaldi	18
91 - 100 jardunaldi	20
101 - 110 jardunaldi	22
111 - 120 jardunaldi	24
121 - 130 jardunaldi	26
131 - 140 jardunaldi	28
141 - 150 jardunaldi	30
151 - 200 jardunaldi	35
201 - 250 jardunaldi	40
251 - 300 jardunaldi	45
301 - 350 jardunaldi	50
351 - 400 jardunaldi	55
401 - 450 jardunaldi	60
451 - 500 jardunaldi	70

c) Eskola kirola:

Eskolarteko Kirol Jokoen garapenean erakunde laguntzaile moduan diharduten Arabako kirol federazioak eta Arabako Mendi Federazioa, eskola umeen mendi irteerak egiteagatik. Federazio lizentzia –ez eskola lizentzia– duten parte hartzaileekin egindako lehiaketa ofizialei buruzko datuak:

c1. Irabazteko xederik gabeko elkarte kopuruagatik:

Eskola umeen lehiaketa ofizialetan eta mendi irteeretan (2019-2020ko Eskola Kiroleko Kanpaina) parte hartzen duten irabazteko xederik gabeko elkarten kopurua (ez taldeak):

ERAKUNDE KOPURUA	PUNTUAK
1 - 5 erakunde	1
6 - 10 erakunde	2
11 - 15 erakunde	3
16 - 20 erakunde	4
21 - 25 erakunde	5
26 - 30 erakunde	6
31 - 35 erakunde	7
36 - 40 erakunde	8
41 - 50 erakunde	9
51 - 60 erakunde	10
61 - 70 erakunde	11
71 - 80 erakunde	12
81 - 90 erakunde	13
91 - 100 erakunde	14
101 erakunde baino gehiago	15

c2. Jardunaldi kopuruagatik:

Eskolako lehiaketa ofizialen egutegietan zenbat jardunaldi dauden (benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak) eta zenbat mendi irteera egiten dituzten (2019-2020ko eskola kiroleko kanpaina). Gizonezkoen zein emakumezkoen eskola kategoria guztietako jardunaldiak batuko dira:

EGUTEGIKO JARDUNALDI KOPURUA	PUNTUAK
1 - 10 jardunaldi	1
11 - 20 jardunaldi	2
21 - 30 jardunaldi	3
31 - 40 jardunaldi	4
41 - 50 jardunaldi	5
51 - 60 jardunaldi	6
61 - 70 jardunaldi	7
71 - 80 jardunaldi	8
81 - 90 jardunaldi	9
91 - 100 jardunaldi	10
101 - 110 jardunaldi	11
111 - 120 jardunaldi	12
121 - 130 jardunaldi	13
131 - 140 jardunaldi	14
141 - 150 jardunaldi	15
151 - 200 jardunaldi	20
201 - 250 jardunaldi	25
251 - 300 jardunaldi	30
301 - 350 jardunaldi	35
351 - 400 jardunaldi	40
401 - 450 jardunaldi	45
450 jardunaldi baino gehiago	50

B. San Prudentzio jaietako jarduerengatik egin beharreko ekarpenerako.

Egindako eta egin direla justifikatutako jardueren arabera kalkulu sistema bat ezartzen da kirol modalitate bakoitzean. Federazio bakoitzari dagokion zenbatekoa ezartzeko, eragiketa hau egingo da: federazio bakoitzak antolaturiko San Prudentzio jaietako jarduera kopurua bider 750 euro. Gehienez ere 5 jarduera egingo dira kirol modalitate eta kirol federazio bakoitzeko.

Gehienez ere 26.250 euro emango dira; hau da, San Prudentzio jaietako 35 jarduera antolatzeak eskatzen duena.

Baldin eta 35 kirol jarduera baino gehiago justifikatzen badira, berriz ere kalkulatu da San Prudentzio jaietako jarduera antolatu bakoitzari emango zaio kopurua (750 euro), 26.250 euroak hainbanatuta San Prudentzio jaietako kirol jarduera antolatuen artean.

Ez da laguntza honen onuraduna izango Boloen Arabako Federazioa, jarduera horiek herri kirolen hitzarmenaren bidez finantzatzen baitira eta hitzarmen hori Arabako Foru Aldundiaren kultura eta kirol sailarekin sinatzen da.

Foru Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren III. eranskina**HITZARMEN EREDUA**

LANKIDETZA HITZARMENA, ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ARABAKO
..... FEDERAZIOAREN ARTEKOA
Vitoria-Gasteiz,

BILDU DIRA

Alde batetik, Ana M. del Val Sancho, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Saileko foru diputatu gisa,

eta, bestetik, jn./and., Arabako
..... Federazioaren ordezkari moduan.

Bi alderdiek hitzarmen hau egiteko legezko ahalmen nahikoa aitortzen diote elkarri, eta, ordezkatzen dituzten erakundeen izenean, LANKIDETZA HITZARMEN hau izenpetzen dute; horretarako, honako hau

ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa. Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailaren eskumena da:

- Beste instituzio, erakunde edo pertsona fisiko edo juridiko batzuekin harremanak ezartzea.
- Arabako Lurralde Historikoarekin lotutako kirol arloko azterlanak, planak eta proiektuak sortu, garatu eta gauzatzea.

Bigarrena. Ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, 3. artikuluan, kirol federazioak administrazio publikoen lankide izendatzen ditu. Haiekin batera, modu aktiboan, Euskadin kirola garatzen eta antolatzen parte hartzen du aldundiak. Lege horren 15. Artikuluaren arabera, federazioek administrazio izaerako funtzio publikoak betetzen dituzte, administrazioak eskuordetuta.

14/1998 Legearen 5. artikuluan bidez, lurralde historikoetako foru organoei onarpen, laguntza, finantzazio, esku hartze eta kontrolari buruzko eskumena ematen zaie, beren funtzio publikoak betetzen dituztela bermatzeko, jardun pribatuaren kalterik gabe.

Hirugarrena. Lege horren 16. artikuluan xedatu legez, federazioei federatutako kirolaren antolakuntzari eta aisialdiko kirolaren sustapenari dagozkion egitekoak dagozkie, baita 25.1. I) artikuluan xedatutakoa ere, hau da, herri administrazioarekin batera parte hartzea eta elkarlanean aritzea kirol programak garatzen, batez ere eskola kiroleko programetan.

Laugarrena. EAEko Kirol Federazioei buruzko 16/2006 Dekretuaren 6. artikuluan adierazi zen administrazioek kirol federazioei beren jarduerak egiteko behar dituzten laguntza tekniko eta babes ekonomikoa emango dietela, beren aurrekontuetan ezarrita dauden dotazioen arabera.

Bosgarrena. 16/2006 Dekretuaren 16.1 artikuluan jaso zenez, lurraldeko kirol federazioek lurralde historikoetako foru organoekin lankidetzan gauzatuko dituzte eginkizunak. Horretarako, lankidetzaren hitzarmenak izenpetuko dituzte elkarren artean, eskuordetzan emandako egiteko publikoekin zuzenean lotutako helburuak, kirol programak, aurrekontuak eta gainontzekoak zehazteko.

Seigarrena. Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 25eko 128/2020 Erabakiaren bidez onartu zen Arabako Foru Aldundiak eta hala eskatzen duten Arabako kirol federazioetako bakoitzak, administrazioaren erakunde laguntzaile moduan, lankidetzaren hitzarmenak izenpetzea. Baita ere, Arabako Foru Aldundiak hitzarmen horietako bakoitzera egin beharreko ekarpena finkatzeko irizpideak eta baremoa onartu ziren.

Horrengatik guztiatik, hitzarmen hau izenpetzen dute, ondoko klausulen arabera.

Klausulak

Lehenengoa. Xedea

Hitzarmenaren xedea honako hau da: Arabako Foru Aldundiaren eta Arabako..... Federazioaren arteko lankidetzaren arautzea, federazio hori diru baliabidez hornitzeko, administrazio eginkizun publikoak garatu ahal izan ditzan eta, oro har, Arabako Foru Aldundiaren eragile laguntzaile gisa diharduenerako, ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskadiko kirolarenak, esleitzen dizkien eskumenak erabiliz.

Bigarrena. Federazioaren eginbeharrak

Hitzarmen hau izenpetzen duen federazioaren betebeharrak izango dira:

a) Ohiko jarduera, administrazio jarduera eta, oro har, federazio, eskola eta aisialdiko jarduera garatzeko beharrezkoak diren guztiak egitea.

b) Ondoko agiri hauek aurkeztea:

Federazioak 2020ko ekainaren 29ra arteko epea izango Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 25eko 128/2020 Erabakiaren II. eranskineko lehenengo idatz zatian (laguntza osagarria kalkulatzeko beharrezko agiriari buruzkoan) adierazten diren agiriak eta Kirol Zerbitzuak eskatutako agiriak aurkezteko.

c) Kultura eta Kirol Sailak jardueren inguruan eskatzen dizkion datu eta agiri guztiak ematea.

d) Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontu Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatzen duten informazioa ere eman beharko dute, eta egin beharreko auditoria onartu beharko dute.

e) Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzea kirol talde eta elkarteei eta oro har kirolari guztiei Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak onartzen dituen dirulaguntzen deialdiak ezagutarazteko.

f) Oinarrietan ezarritakoa kontuan hartuta, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzeko beharra, dirulaguntzen deialdiak ebazteko behar diren ziurtagiriak eta datuak batzen.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailaren betebeharrak

Aipatutako federazioari diruz laguntzea 2020an, ondoko ekarpen hauek eginez:

a) Urteko gutxienerako ekarpena, 3.000 eurokoa.

Urteko gutxienerako ekarpenaren ordainketa hitzarmen hau izenpetu eta gero egingo da.

b) Ekarpene osagarria, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 25eko 128/2020 Erabakiaren II. eranskinean jasotzen diren irizpideak eta puntuazio baremoa aplikatuz Foru Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez onesten den zenbatekoa izango baituen, eta zeina laguntza osagarria onesten duen erabakia onesten denean ordainduko baita.

c) Ekarpene bat San Prudentzio jaiak ospatzeko kirol jarduerak antolatzeagatik, gehienez ere 26.250 eurokoa.

Laugarrena. Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen honen iraunaldia hura izenpetzen denetik 2020ko abenduaren 31ra artekoa izango da.

Bosgarrena. Jarraipen Batzordea


Jarraipen batzorde bat eratuko da, ondoko kide hauek osatuko dutena: Arabako Federazioaren lehendakaria, edo berak eskuordetzen duena, federazioaren ordezkari, eta Kirol Zerbitzuaren burua, edo berak eskuordetzen duena, Arabako Foru Aldundiaren Kirol Zuzendaritzaren ordezkari. Batzorde honek arazoak eta gatazkak ebazteko ardura izango du, sortzen badira.

Seigarrena. Hitzarmena suntsitzeko kausak

Hitzarmen hau izenpetzen duten aldeentzat, hitzarmena suntsitzeko kausa izango da bertan jasotzen diren klausulak ez betetzea, baita haren izaeraren ondorio den eta izenpetzaileek ituntzen duten beste edozein ere.

Zehatzago esanda, II. eranskinaren bigarren paragrafoan aipatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, hitzarmenak ezeztatu egingo dira, eta gutxieneko ekarpen gisa jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.

Eta, horrekin guztiarekin ados daudela agertzeko, bi aletan izenpetzen dute, goian adierazitako tokian eta egunean.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Arabako kirol federazioak, gutxieneko langutza eta lankidetzaren hitzarmena. San Prudentzio jarduerak</p> <p>Eskabidea. (I. eranskina)</p> <p>2020</p> <p>Solicitud. Federaciones deportivas alavesas, ayuda mínima y convenio de colaboración. Actividades de San Prudentio</p>
	<p>(Anexo I)</p>

Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Cultura y Deporte

ASUN

(Administrazioak betetzeko ■ A cumplimentar por la Administración)

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE ⁽¹⁾

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

IKZ ■ CIF

Identifikazio zk. ■ Nº identificativo

Sozietatearen izena ■ Razón social

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herría ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL ⁽²⁾

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle)

Zk. ■ Núm.

Letra

Eskra. ■ Escal.

Solairua ■ Piso

Aldea ■ Mano

Herrialdea ■ País

Probintzia ■ Provincia

Udalerría ■ Municipio

Herría ■ Localidad

P. K. ■ C. P.

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Pertsona juridikoentzat nahitaezkoa da ■ Obligatorio para las personas jurídicas)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo

NAN

DNI

AIZ

NIE

Besteren bat

Otro

Identifikazio zk. ■ Nº identificativo

Sexua ■ Sexo

Emakumea

Mujer

Gizona

Hombre

Izena ■ Nombre

Lehen abizena ■ Primer apellido

Bigarren abizena ■ Segundo apellido


Posta elektronikoa ■ Correo electrónico

Telefona ■ Teléfono

Mugikorra ■ Móvil

Faxa ■ Fax

Orria ■ Hoja 1/5

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>Arabako kirol federazioak, gutxieneko languntza eta lankidetzaz hitzarmena. San Prudentzio jarduerak</p> <p>Eskabidea. (I. eranskina)</p> <p>2020</p> <p>Solicitud. Federaciones deportivas alavesas, ayuda mínima y convenio de colaboración. Actividades de San Prudentio</p> <p>(Anexo I)</p>
--	--

Kultura eta Kirol
Saila

Departamento de
Cultura y Deporte


BANKUEN DATUAK ■ DATOS BANCARIOS ⁽³⁾

(Banku helbideratzearen datuak aldatu badira bete solilik ■ Cumplimentar únicamente en el caso de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

BANKUA ■ BANCO	
IBAN	SWIFT

(FINANTZA ENTITATEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA)	(ESKATZAILEAK bete behar du) ■ (A rellenar por la persona SOLICITANTE)
